



ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZAKO SAILBURUAREN AGINDUA, NEKAZARITZA- ETA LANDA-EREMUETAKO EMAKUMEEN ESTATUTUARI BURUZKO LEGEAREN AURREPROIEKTUA ALDEZ AURRETIK ONARTZEKO DENA, NEKAZARIEN EMAKUMEEN ESTATUTUARI BURUZKO URRIAREN 15EKO 8/2015 LEGEA INDARGABETZEN DUENA

Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikulua 1. apartatuak honako hau xedatzen du: «Xedapen orokorren proiektuak idatzi ondoren, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik, kasuan kasuko testu artikulatuak hasiera-agindua eman duen organoak adostutako aurretiazko onespena izan beharko du».

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren agindu bidez, xedapen orokor bat egiteko prozedurari hasiera ematea erabaki zen, Nekazaritza- eta Landa-eremueta Emakumeen Estatutuari buruzko legearen aurreproiektua egiteko, Nekazarien Emakumeen Estatutuari buruzko urriaren 15eko 8/2015 Legea indargabetzen duena.

Artikulu beraren 2. apartatuak honako hau ezartzen du: «Aurretiazko onespen-aginduak hala onartutako testu elebiduna eta artikulu honetan aipatutako gainerako dokumentuak erantsiko ditu; dokumentu horiek espedientea osatuko dute, eta harekin jarraituko dira ondorengo izapideak, berehala egiteko aginduz».

Azaldutakoa kontuan hartuta, ikusita Nekazaritza- eta Landa-eremueta Emakumeen Estatutuari buruzko legearen aurreproiektuaren testu elebiduna, Nekazarien Emakumeen Estatutuari buruzko urriaren 15eko 8/2015 Legea indargabetzen duena, bai eta arau-eraginaren azterketari buruzko memoria, memoria ekonomikoa eta espedientean jasotako gainerako dokumentazioa ere.

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA.- Aldez aurretik onartzea Nekazaritza- eta Landa-eremueta Emakumeen Estatutuari buruzko legearen aurreproiektuaren testu elebiduna, Nekazarien Emakumeen Estatutuari buruzko urriaren 15eko 8/2015 Legea indargabetzen duena, Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

BIGARRENA.- Agintzea onartutako testu elebiduna espedienteari eranstea, arau-eraginaren azterketari buruzko memoriarekin, memoria ekonomikoarekin eta ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikulua eskatzen dituen gainerako dokumentuekin batera; aplikatzekoa den araudiaren arabera bidezkoak diren negoziatio-, entzunaldi-, kontsulta- eta gainerako izapideak berehala egiteko agintzea; eta agindu honen bidez onartzen den lege-aurreproiektua Legebiltzarrera bidaltzeko agintzea, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan.

Amaia Barredo Martín

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua

ORDEN DE LA CONSEJERA DE ALIMENTACIÓN, DESARROLLO RURAL, AGRICULTURA Y PESCA DE APROBACIÓN PREVIA DEL ANTEPROYECTO DE LEY DEL ESTATUTO DE LAS MUJERES DEL ÁMBITO AGRARIO Y RURAL POR LA QUE SE DEROGA LA LEY 8/2015, DE 15 DE OCTUBRE, DEL ESTATUTO DE LAS MUJERES AGRICULTORAS

El apartado 1 del artículo 15 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General dispone que «Una vez redactados los proyectos de disposición de carácter general, antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan, el texto articulado correspondiente deberá contar con la aprobación previa acordada por el órgano que haya dictado la orden de inicio».

Mediante Orden de la consejera de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca se acordó el inicio del procedimiento de elaboración de una disposición de carácter general con el objeto de elaborar el anteproyecto de Ley del Estatuto de las Mujeres del Ámbito Agrario y Rural por la que se deroga la Ley 8/2015, de 15 de octubre, del Estatuto de las Mujeres Agricultoras.

El apartado 2 del mismo artículo 15 establece que «La orden de aprobación previa adjuntará el texto bilingüe así aprobado y el resto de los documentos referidos en este artículo, que conformarán el expediente con el que se seguirán los trámites subsiguientes, ordenando su evacuación inmediata».

A tenor de lo expuesto, visto el texto bilingüe del anteproyecto de Ley del Estatuto de las Mujeres del Ámbito Agrario y Rural por la que se deroga la Ley 8/2015, de 15 de octubre, del Estatuto de las Mujeres Agricultoras, así como la memoria de análisis de impacto normativo, la memoria económica y el resto de la documentación incorporada al expediente.

RESUELVO

PRIMERO.- Aprobar, con carácter previo, el texto bilingüe del anteproyecto de Ley del Estatuto de las Mujeres del Ámbito Agrario y Rural por la que se deroga la Ley 8/2015, de 15 de octubre, del Estatuto de las Mujeres Agricultoras, a los efectos previstos en el artículo 15 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

SEGUNDO.- Disponer que se incorpore al expediente el texto bilingüe aprobado, junto con la memoria de análisis de impacto normativo, la memoria económica y los demás documentos exigidos por el artículo 15 de la Ley 6/2022, de 30 de junio; ordenar la evacuación inmediata de los trámites de negociación, audiencia, consulta y demás que resulten procedentes conforme a la normativa aplicable; y ordenar la remisión al Parlamento del anteproyecto de ley que se aprueba mediante esta orden, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 56.1 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, sobre Ley de Gobierno.

En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma electrónica.

Amaia Barredo Martín

Consejera de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca

NEKAZARITZA- ETA LANDA-EREMUETAKO EMAKUMEEN ESTATUTUARI BURUZKO LEGEAREN AURREPROIEKTUA, NEKAZARIEN EMAKUMEEN ESTATUTUARI BURUZKO URRIAREN 15EKO 8/2015 LEGEA INDARGABETZEN DUENA.

ZIOEN AZALPENA

Abenduaren 23ko 17/2008 Legeak, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikarenak, sektoreko emakumeen egoera hobetzea ezartzen du bere helburuen artean. Hala, 75. artikuluan xedatzen duenez, «euskal nekazaritza-administrazioek arau bidez garatuko dute emakume nekazariaren estatutua, kolektibo horren alde sustatu beharreko jarduketak arautuko dituen».

Eginkizun hori urriaren 15eko 8/2015 Legea, Nekazarien Emakumeen Estatutuari buruzkoa, argitaratuz bete zen, sektorearekin urte luzez egindako lanaren eta bileren emaitza gisa. Lege horrek ordezkaritza orekatuaren garrantzia finkatu zuen, eta hura ezartzeko epe mailakatuak aurreikusi zituen.

Ildo horretan, lehenengo xedapen gehigarriak ezartzen zuen «landa-garapenerako elkarteek beren estatutuak egokituko dituztela lege hau indarrean jarri eta hiru urteko epean, emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua bermatuta gera dadin».

Era berean, bigarren xedapen gehigarriaren lehenengo apartatuak honako hau xedatzen zuen: «lege hau indarrean jarri ondorengo lau urteetan egiten diren deialdietan nekazaritza-elkarte eta -erakundeen zuzendaritza-organoetan emakumeen presentziak, eta hurrengo hiru urteetan gutxienez presentzia orekatuak, elkarte eta nekazaritza-erakundeentzako laguntzen kuantifikazio-irizpideetan lor daitekeen gehieneko puntuazio osoaren % 15 hartuko dute gutxienez».

Bestalde, bigarren xedapen gehigarriaren bigarren apartatuak ezartzen zuen Estatutoa indarrean jarri eta lau urte igaro ondoren «nekazaritzaren arloan eskumena duten euskal administrazioek ez dietela laguntzarik edo dirulaguntzarik emango nekazaritza-eremuan jarduten duten eta beren zuzendaritza-organoetan emakumerik ez duten elkarte edo erakunde profesionalei, enpresariei, sindikalei edo bestelakoei»; eta eransten zuen indarrean sartu eta sei urte igaro ondoren «ez zaiela emango zuzendaritza-organoetan gutxienez emakumeen presentzia orekatua ez dutenei».

Halaber, aipatutako urriaren 15eko 8/2015 Legeak, bere VI. tituluan, Nekazarien Emakumeen Estatutuaren Jarraipen Batzordea sortu zuen. Organo horren bileretan agerian geratu dira arauak ekarri dituen aurrerapenak eta indar handiagoz jorratu beharreko alderdiak.

Zalantzarik gabe, Nekazarien Emakumeen Estatutuak mugarri garrantzitsua ekarri du sektorean jarduten duten emakumeen aitortzan, ikusgarritasunean eta egoeraren hobekuntzan; hala ere, hobekuntza-tarte handia dago oraindik, eta hura indarrean sartu zenetik hamar urte igaro direnez, beharrezkotzat jo da aurrekoaren alderdi onuragarriak bilduko dituen arau berri bat prestatzea, nekazaritza- eta landa-eremueta emakumeen egoeran aurrerapenak lortzen laguntzeko, sektore horietan benetako eta egiazko berdintasuna erdiestearren.

Horretarako, 2025eko urriaren 15ean, arauaren hamargarren urteurrenaren harira egindako Nekazarien Emakumeen Estatutuaren Jarraipen Batzordearen bileran, egiaztatu zen antzeko beharrak daudela emakume nekazarien eta nekazaritza- eta landa-eremueta emakumeen artean, eta egoki jo zen guztiak lege-gorputz berean

jasotzea, tratamendu arauemaile erkidea eman dakiekeen alderdiak arautuz eta, aldi berean, desberdintasunak ere kontuan hartuz, etorkizunean sortzen diren auziak txertatu ahal izateko.

Arau honen lehentasunezko helburuen artean daude nekazaritza- eta landa-eremuko emakumeen lana ikusaraztea, jasaten dituzten zailtasunak gainditzea —bereziki diskriminazio anitza pairatzen duten emakumeen kasuan— eta teknologian, berrikuntzan eta berdintasunean prestatzeko mekanismoak ezartzea; azken hori, bereziki, sektorean lan egiten duten gizonei zuzendua.

Bestalde, Euskadiko nekazaritza- eta landa-eremuaren gizarte-, ekonomia- eta lurralde-iraunkortasunak belaunaldi-erreleboari modu erabakigarrian heltzea eskatzen du; gure gizartean emakumeek eta gizonek abiapuntu desberdina dutela eta emakume gazteen presentzia beharrezkoa dela kontuan hartuta, hori sektore horien erronka estruktural nagusietako bat da. Testuinguru horretan, emakume gazteak sartzeko estrategikoa da, ez soilik ekoizpen-jardueraren jarraitutasuna bermatzeko, baizik eta bizitza erdigunean jarriko duten eredu berritzaileagoak, iraunkorragoak eta berdinzaleagoak bultzatzeko ere.

Lege honek belaunaldi-erreleboa politika publiko estrategikotzat hartzen du, eta zeharka txertatzen du titulartasuna sustatzeko, jarduerara sartzeko, prestakuntzarako, babes sozialerako eta lurralde-garapenerako neurrietan. Horretarako, nekazari gazteei laguntzeko araudi espezifikoak garatzearekin batera jarduten da, genero-ikuspegia haren aplikazioan, garapenean, jarraipenean eta ebaluazioan txertatuz.

Halaber, Estatutuak aitortzen du belaunaldi-errelebo eraginkorrak emakume gazteak sektore hauetan sartzeko eta bertan irautea bideragarri eta erakargarri egingo duten baldintza material eta sozialak bermatzea eskatzen duela. Baldintza horien artean daude, bereziki, Gizarte Segurantzaren benetan kotizatzea, babes sozial nahikoa eskuratzea eta egindako lanetik eratorritako eskubide ekonomikoen aintzatespen osoa.

Prestakuntza da belaunaldi-erreleboa bermatzeko ezinbesteko beste zutabeetako bat. Ildo horretan, legea ez da prestakuntza tekniko tradizionalera mugatzen; aitzitik, lidergora, digitalizaziora, berrikuntzara, jardueren dibertsifikaziora eta ekoizpen-, teknologia- eta ingurumen-erronka berrietara egokitzea bideratutako prestakuntza integrala bultzatzen du. Prestakuntza hori emakumeen ahalduzko ekonomiko eta sozialerako funtsezko tresna gisa ulertzen da, bai eta erabakiak hartzeko guneetan parte hartzeko ere; eta genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala jaso beharko ditu.

Landa-garapena ere ikuspegi estruktural batetik jorratzen da. Azpiegitura eta zerbitzu egokiak izatea, eta bereziki kalitatezko konektibitate digitalerako sarbidea, baldintza bat da proiektu berritzaileak ezarri eta merkatuetara konektatzeko. Ildo horretan, Next Generation europar funtsen bultzada bereziari lotutako fasea gaindituta, euskal administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, azpiegitura horien jarraitutasuna, mantentzea eta hedapena bermatu behar dituzte, lurralde-kohesiorako eta aukera-berdintasunerako oinarritzko elementu gisa.

Lege honek, urriaren 15eko 8/2015 Legea indargabetzen duenak, haren sorrerako espiritua mantendu eta indartzen du, gizarte-, ekonomia- eta lurralde-errealitate

berrietara egokituz. Horrela, Estatutuak ikuspegi integral baterantz egiten du aurrera, berdintasuna, belaunaldi-erreleboa, berrikuntza eta lurralde-garapena lotuz, eta emakumeak —bereziki emakume gazteak— Euskadiko nekazaritza- eta landa-sektorearen etorkizuneko iraunkortasunaren erdigunean kokatuz.

Gainera, sektoreko emakumeen parte-hartze foroek bere horretan jarraituko dute, hala nola Nekazarien Emakumeen Estatutuaren Jarraipen Batzordeak, eta haren osaera aldatuko da nekazaritza- eta landa-eremuetako emakumeak ere barne hartzeko.

Lege hau prestatzen duten printzipioak dira sexuagatiko diskriminazioan oinarritutako desberdintasunen murrizketa, nekazaritza- eta landa-sektoreetan emakumeen lana ikusarazi eta duintzea, eta erabakiak hartzeko organoetan berdintasun-baldintzetan parte hartzea.

Aipatutako sektoreetan benetako eta egiazko berdintasuna lortzeko asmoz, dokumentu hau egituratzen da, eta hura indarrean sartzearekin batera, aldi berean, indargabetu egingo da urriaren 15eko 8/2015 Legea, Nekazarien Emakumeen Estatutuari buruzkoa.

Halaber, lege honek hizkuntza-ikuspegia txertatzen du nekazaritza- eta landa-eremuko emakumeei zuzendutako politika publikoen zeharkako elementu gisa, Euskadiko errealitate soziolinguistikoa eta landa-eremuak euskararen erabileraren normalizazioan duen izaera estrategikoa kontuan hartuta. Horretarako, lege honetan aurreikusitako jarduketek bermatu beharko dute hartzaileen hizkuntza-eskubideak benetan egikaritu ahal izatea, bai eta informazioa, zerbitzuak, materialak, partaidetza-prozesuak eta prestakuntza-ekintzak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan eskuragarri egotea ere.

Gai honi aplikatu beharreko arauei dagokienez, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 157. artikulua 4. apartatuak adierazten du estatu kideek neurri espezifikoak mantendu edo har ditzaketela, gutxien ordezkatutako sexuari jarduera autonomoak gauzatzea errazteko edo sexu horretako pertsonen lanbide-karreran dauden desabantailak saihestu edo konpentsatzeko.

Aipatzekoak dira, halaber, Kontseiluaren 1978ko abenduaren 19ko 79/7/EEE Zuzentaraua, gizarte-segurantzaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa pixkanaka aplikatzeari buruzkoa, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko uztailaren 5eko 2006/54/EE Zuzentaraua, enpleguaren eta okupazioaren arloko aukera-berdintasunaren eta emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko uztailaren 7ko 2010/41/EB Zuzentaraua, jarduera autonomoa egiten duten emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa, funtsezko erreferentzia da emakume nekazariantzat langile autonomo gisa, bereziki gizarte-babesari, tratu-berdintasunari eta ordaindu gabeko lanaren aitortzari dagokienez.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 (EB) Erregelamenduak —Europar Batasuneko estatu kideek nekazaritza-politika erkidearen (NPE) esparruan prestatu beharreko plan estrategikoei buruzko laguntzaren arauak ezartzen dituenak, Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsetik (NBEF/FEAGA) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsetik (LGENF/Feader) finantzatutakoak,

eta 1305/2013 eta 1307/2013 (EB) Erregelamenduak indargabetzen dituenak— berariaz txertatzen du genero-berdintasuna NPEren diseinuaren, gauzatzearen eta ebaluazioaren osagai gisa, eta, horrez gain, sexuaren arabera bereizitako datuak biltzea eta nekazaritza-sektoreko emakumeen aldeko neurri espezifikoak eskatzen ditu.

Bestalde, urriaren 4ko 35/2011 Legeak, nekazaritza-ustategien titulartasun partekatuari buruzkoak, figura hori arautzen du, landa-eremuan emakumeen benetako eta egiazko berdintasuna sustatu eta errazteko, nekazaritza-jardueran duten parte-hartzearen aitorpen juridiko eta ekonomikoaren bidez. Lege horrek aurreikusten duenez, titulartasun partekatua eratzen ez bada, ezkontidearen edo antzeko afektibitate-harreman batez lotutako pertsonaren alde sortutako eskubide ekonomikoak arautuko dira, ustategiaren titularraren aurrean, ustategian modu eraginkor eta erregularrean egindako nekazaritza-jardueraren ordainsari gisa.

Martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretuak, enpleguan eta okupazioan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunerako premiazko neurriei buruzkoak, berdintasunaren esparru orokorra indartzen du, eta zeharkako eragina du nekazaritza-sektorean ere, lan- eta ekonomia-eremu gisa.

Uztailaren 12ko 15/2022 Legeak, tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko lege integralak, sexuagatiko diskriminazioaren aurkako babesa zabaltzen du arlo guztietan, enplegua, jarduera ekonomikoa eta baliabideetarako sarbidea barne, landa- eta nekazaritza-eremuan ere eragina duelarik.

Genero-berdintasunaren arloan indarrean dagoen Europako estrategiak eta haren ondorengo garapenek erreferentziazko esparru politikoa osatzen dute, Europar Batasuneko politika guztietan genero-zeharkakotasuna bultzatzen dutelako, nekazaritzako eta landa-garapeneko politikak barne.

Aipatutako araudiaz gain, nabarmendu behar da martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testuategina onartzen duena — aurrerantzean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Euskal Legea—. Lege horrek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan botere publikoen jarduna gidatu behar duten printzipio orokorrak ezartzen ditu; horien artean daude ekintza positiboa, dauden desberdintasunak zuzentzeko tresna gisa, eta emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua erabakiak hartzeko esparruetan.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Euskal Legeak genero-ikuspegia politika publikoen diseinuan, gauzatzean eta ebaluazioan zeharka txertatzea sendotu zuen, eta ordezkartza orekatua indartzen lagundu zuen.

Eskumen-esparruari dagokionez, adierazi behar da lege hau Euskadiko Autonomia Erkidegoak nekazaritza eta abeltzaintzaren arloan duen eskumen eskusiboa baliatuz ematen dela, ekonomiaren antolamendu orokorrarekin bat etorriz, Konstituzioaren 148.1.7 artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuaren 10.9 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurralde historikoetako foru-aldundiak eta sektoreko erakunde profesionalak kontsultatu dira arau hau prestatzeko prozesuan.

Horrenbestez, dagozkion nahitaezko txostenak eman ondoren, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa entzunda, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak ... egunean egindako bilkuran alde zuzenetik eztabaidatu eta onartu ondoren,

XEDATZEN DUT

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- *Xedea*.

Lege honen xedea da nekazaritza- eta landa-eremuko emakumeen estatutua sortzea, sektore horietako emakumeek egindako lana ikusarazteko, duintzeko eta berdintasun-baldintzetan egiten dela bermatzen laguntzeko.

2. artikulua.- *Aplikazio-eremua*.

Lege hau Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen barruan nekazaritza- eta landa-sektoreetan nahiz landa-ingurunean bizi edo jarduten duten emakume guztiei aplikatuko zaie, haien araubide juridikoa, lan-araubidea edo antolaketa-modua edozein dela ere.

II. KAPITULUA.- PRINTZPIO GIDARIAK

3. artikulua.- *Printzipioak*.

Lege honen oinarri diren printzipioak hauek dira: tratu- eta aukera-berdintasuna, genero-zeharkakotasuna, ekintza positiboa, ordezkari-erakunde, emakumeen ahalgintza, intersektorialitatea, hizkuntza-eskubideen bermea eta euskararen erabilaren sustapena, botere publikoen lankidetasuna eta koordinazioa, eta gizonen inplikazioa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik gabeko Bizitzetarako Euskal Legean eta euskararen erabilaren normalizazioaren arloan indarrean dagoen araudian jasota daudenak.

Printzipio horiek zuzenean gidatzen dute arau hau, nekazaritza- eta landa-eremuetan emakumeei eragiten dieten egiturazko desberdintasunek bere horretan dirautelako.

1.- Tratu- eta aukera-berdintasuna.

Nekazaritza- eta landa-eremuan, emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasuna jardun publikoaren funtsezko printzipioa da, eta emakumeei eragiten dieten egiturazko desberdintasunak zuzentzeko neurri espezifikoak hartzea eskatzen du; bereziki, haien lanaren aitortza profesionalean, titulartasunerako eta ekoizpen-baliabideetarako sarbidean eta ordezkari- eta erabaki-organoetan parte hartzean, benetako eta egiazko berdintasuna bermatzeko helburuarekin.

2.- Genero-zeharkakotasuna.

Genero-zeharkakotasunak eskatzen du genero-ikuspegia nekazaritza- eta landa-eremuetako politika publikoen diseinuan, garapenean, gauzatzean eta ebaluazioan txertatzea, emakumeen eta gizonen baldintza, behar eta errealitate desberdinak kontuan hartuta, dauden egiturazko desberdintasunak zuzentzeko eta jarduketara

publikoek tratua eta aukera-berdintasunari modu eraginkorrean laguntzen diotela ziurtatzeko. Lege honen ondorioetarako, genero-ikuspegia txertatzea honela ulertzen da: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, nahi eta beharren arteko aldeak sistematikoki kontuan hartzea, eta desberdintasunak ezabatu eta berdintasuna sustatzeko helburu eta jarduketara espezifikoa politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta planifikazio, gauzatze eta ebaluazio fase guztietan txertatzea.

3.- Ekintza positiboa.

Nekazaritza- eta landa-eremuetan, ekintza positiboa funtsezko mekanismoa da emakumeei eragiten dieten egiturazko desberdintasunei aurre egiteko, bereziki titulartasunerako eta ekoizpen-baliabideetarako sarbidean, haien lanaren aitortza profesionalean eta ordezkari- eta erabaki-organoetan parte hartzean; horrenbestez, desberdintasun horiek zuzentzera eta benetako eta egiazko berdintasuna sustatzera bideratutako neurri espezifikoak hartzea legitimatzen du.

4.- Ordezkaritza orekatua.

Nekazaritza- eta landa-eremuetako ordezkari- eta parte-hartze- eta erabaki-organoetan emakumeen eta gizonen ordezkari- orekatua egiturazko printzipio gisa eraten da, emakumeek espazio horietan izan duten gutxiengizko ordezkari- historikoa dela eta, eta beharrezkoa da sektorean gobernantza inklusiboa eta benetako eta egiazko berdintasuna bermatzeko. Euskal botere publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lortzeko erabakiak hartzeko guneetan, gaitasun, eskumen eta prestakuntza egokiak dituzten pertsonen artean.

5.- Emakumeen ahalduntzea.

Estatutu honen ondorioetarako, nekazaritza- eta landa-eremuetako emakumeen ahalduntzearen printzipioa honela ulertuko da: haien autonomia pertsonala, soziala, ekonomikoa eta profesionala sendotzera bideratutako banakako eta taldeko prozesua, bai eta ekoizpen-baliabideak, eskubideak, erabakiak hartzea eta nekazaritza-, abeltzaintza-, basogintza- eta landa-eremuetako jardueretan erantzukizun-posizioak eskuratzeko, erabiltzeko eta kontrolatzeko duten benetako eta egiazko gaitasuna ere.

Printzipio horrek esan nahi du sektore horietan emakumeen parte-hartze osoa mugatzen duten oztopo egiturazko, sozial, ekonomiko eta kulturalak kentzea, haien ekarpen historikoa eta gaur egungoa aitortu eta ikusaraztea, aukera-berdintasuna bermatzea eta erabaki-, ordezkari-, titulartasun- eta kudeaketa-organoetan, bai eta landa-eremuari lotutako jarduerara ekonomikoetan ere, haien presentzia orekatua sustatzea.

Nekazaritza- eta landa-eremuetako emakumeen ahalduntzea, halaber, haien gizarte- eta ekonomia-posizioa indartzera, herritartasun osoa sustatzera eta dauden genero-desberdintasunak zuzentzera bideratzen da, Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudian ezarritakoarekin bat etorriz.

6.- Ikuspegi intersektionalaren integrazioa.

Euskal botere publikoek ikuspegi intersektionala sustatuko dute beren politika publikoetan, sexua edo generoa beste diskriminazio- edo desberdintasun-faktore

batzuekin nola elkarreragiten duten kontuan hartuta, bai eta elkarreragin horretatik erator daitezkeen desabantaila-egoerak ere.

7.- Hizkuntza-eskubideen bermea eta euskararen erabileraren sustapena.

Lege hau aplikatuz garatzen diren politika publikoek bermatu beharko dituzte nekazaritza- eta landa-eremuko emakumeen hizkuntza-eskubideak, eta ziurtatu beharko dute administrazio publikoekin harremanak izateko eta arau honetan aurreikusitako informazioa, zerbitzuak, baliabideak, partaidetza-prozesuak eta prestakuntza-ekintzak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan eskuratzeko aukera dutela. Halaber, botere publikoek euskararen erabilera sustatuko dute nekazaritza- eta landa-sektoreei zuzendutako jarduketetan, lurralde bakoitzaren errealitate soziolinguistikoa eta landa-eremuak hizkuntza-normalizazioan duen izaera estrategikoa kontuan hartuta.

8.- Botere publikoen lankidetzak eta koordinazioa.

Printzipio horrek berekin dakar autonomia-erkidegoko, foru- eta toki-administrazioen inplikazioa, bai eta nekazaritza- eta landa-arloetan, berdintasunean, landa-garapenean, enpleguan, prestakuntzan eta lurralde-kohesioan eskumena duten organoena ere.

Horretarako, botere publikoek modu koherente, osagarri eta koordinatuan jardun beharko dute, genero-ikuspegia nekazaritza- eta landa-sektoreetan eragina duten politika publikoen diseinuan, gauzatzean, jarraipenean eta ebaluazioan txertatuz, bikoiztasunak saihesteko, jardueren eraginkortasuna bermatzeko eta nekazaritza- eta landa-eremuko emakumeen egoera hobetzeko duten eragina ahalik eta handiena izan dadin.

Era berean, landa-eremuko gizarte-, ekonomia- eta elkarte-eragileekin lankidetzak sustatuko da, eta bereziki emakume nekazarien erakundeekin, haiei eragiten dieten politika publikoen definizioan eta garapenean haien parte-hartze aktiboa bermatzeko.

9.- Gizonen inplikazioa.

Estatutu hau, halaber, gizonen inplikazioaren printzipioak gidatuko du, nekazaritza- eta landa-eremuetan emakumeen eta gizonen arteko benetako eta egiazko berdintasuna lortzeko haien erantzukizun aktibo gisa ulertuta.

Printzipio horrek esan nahi du gizonek parte hartu behar dutela desberdintasun-egoerak sortzen edo iraunarazten dituzten rol, estereotipo eta genero-harremanen eraldaketan, bai eta ekoizpen-, ugalketa- eta zaintza-erantzukizunen banaketa orekatuan ere; eta, era berean, lidergo-, kudeaketa- eta antolakuntza-kultura eredu berdinzaleagoak, erantzunkideagoak eta inklusiboagoak berrikusi eta sustatzea dakar, bereziki nekazaritza- eta landa-eremuetan, historikoki egitura eta praktika patriarkalez markatuak izan baitira.

Botere publikoek gizonen inplikazioa sustatuko dute emakume nekazarien lana aitortzen, babesten eta balioesten, haien autonomia errespetatzen eta landa-eremuko esparru ekonomiko, sozial eta profesionalean haien parte-hartze osoa bultzatzen, emakumeen ahalduztzera bideratutako neurri espezifikoek kalterik gabe.

III. KAPITULUA.- DEFINIZIOAK

4. artikulua.- *Definizioak.*

Euskal Berdintasun Legean definitutako kontzeptuen kalterik gabe, honako hau ulertuko da honela:

Landa-emakumea: landa-garapenerako politiken lurralde-eremuan bizi den edo bertan jarduera ekonomiko, profesional edo lanekoa egiten duen emakumea.

Nekazaritza-emakumea: Estatutu honetan definitutakoaren arabera nekazaritza-jarduera egiten duen emakume oro, nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-produktuak lortzera bideratua, ustiategiaren antolaketa-modua, lan-araubidea edo araubide juridikoa edozein dela ere.

Halaber, sartuko dira jarduera hori titular, kotitular, soldatapeko, familia-kolaboratzaile, bazkide edo langile autonomo gisa egiten duten emakumeak, bai eta nekazaritza-ustiategiaren kudeaketa-, zuzendaritza- edo gerentzia-eginkizunak betetzen dituztenak edo nekazaritza-sektoreari lotutako erakunde profesional, kooperatiba edo bestelakoetan ordezkartza-lanak egiten dituztenak ere.

Diskriminazio anizkoitza: emakume batek sexuagatik diskriminazioa aldi berean edo modu metatuan jasaten duen egoera, beste diskriminazio- edo desberdintasun-faktore batzuekin batera, eta, horren ondorioz, bereizi ezin diren desabantaila edo eragin espezifikoak sortzen direnean.

Artikulu honetan berariaz jasota ez dauden definizioetarako, aplikagarriak diren Europar Batasuneko, estatuko eta autonomia-erkidegoko araudietan ezarritakoetara joko da.

IV. KAPITULUA.- EMAKUMEEN ESKUBIDEAK ETA AITORPENA

5. artikulua.- *Aitortza sozial eta profesionalerako eskubidea.*

Bermatu egingo da emakumeek lege honek arautzen dituen sektoreetan egiten duten ekarpen ekonomiko, sozial eta kulturalaren aitortpen osoa jasotzeko eskubidea, barne direla lan produktiboaren, ugalketa-lanaren, kudeaketa-lanaren eta zaintza-lanaren ikusgarritasuna.

6. artikulua.- *Titulartasunerako eta baliabideetarako sarbiderako eskubidea.*

Botere publikoek emakumeek ustiategien titulartasuna, jarduera ekonomikoak, laguntza publikoak, finantzaketa, prestakuntza eta ekoizpen-baliabideak berdintasun-baldintzetan eskuratu ditzaten sustatuko dute.

7. artikulua.- *Parte hartzeko eskubidea.*

Emakumeek nekazaritza- eta landa-sektoreetako erabaki-, ordezkartza- eta gobernantza-organoetan benetako parte-hartze eraginkorra izateko eskubidea izango dute.

8. artikulua.- *Nekazaritza-ustiategiaren titulartasuna eskuratzeko eskubidea.*

1. Nekazaritza- eta landa-eremuko emakumeek eskubidea dute, gizon nekazarien baldintza berberetan, nekazaritza-ustiategiaren titulartasuna eskuratzeko, bai eta titulartasun horrek dakartzan eskubide, onura ekonomiko, sozial eta profesional guztiak eskuratzeko ere, aplikatu beharreko araudiaren arabera.
2. Eskubide hori benetan baliatzea bermatzeko, emakume nekazari batek modu egonkor eta esanguratsuan parte hartzen duen nekazaritza-ustiategiek beren antolaketa juridikoa legez aitortutako figuren bidez egituratu beharko dute — banakako titulartasuna, titulartasun partekatua edo elkartze-formak barne—,

- titulartasunetik eratorritako eskubideak eskuratzeko aukera eman dezaten, bai eta emakume nekazariaren ikusgarritasuna eta ahalduntzea ere.
3. Artikulu honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko ustiategiaren soilik besteren konturako lan-araubidean zerbitzuak ematen dituzten nekazaritza- eta landa-eremuko emakumeei, ez eta jarduera edo zerbitzu zehatzak egiteko kontratatutako profesional autonomoei ere.
 4. Nekazaritzaren arloan eskumena duten euskal administrazio publikoek emakumeek nekazaritza-ustiategiaren erregistroko titulartasuna eskuratzeko sustatuko dute, bai eta ustiategiari lotutako laguntzen, ordainketen, ekoizpen-eskubideen, primen, kuoten edo antzeko ondorioa duten bestelako neurrien titulartasuna ere, sarbide hori zailtzen duten oztopoak kenduz.
 5. Lehentasun-neurriak aldian-aldian berrikusi beharko dira, nekazaritza- eta landa-sektoreetako emakumeen benetako egoerara egokituta daudela bermatzeko.

V. KAPITULUA.- TITULARTASUN PARTEKATUA

9. artikulua. *Titulartasun partekatuaren betekizunak.*

1. Kontzeptua eta xedea. Estatutu honen ondorioetarako, titulartasun partekatuko nekazaritza-ustiategitzat hartuko dira emakume baten eta haren ezkontidearen, edo antzeko afektibitate-harreman batez lotutako pertsonaren artean eratutakoak, nekazaritza-ustiategiaren kudeaketa bateratua, zuzena eta erantzunkidea egiteko, eta titulartasunetik eratorritako eskubide, onura eta betebeharrak tratu- eta aukera-berdintasun baldintzetan aitortzea eta eskuratzeko bermatzeko.
2. Betekizunak. Titulartasun partekatuko araubidean dauden nekazaritza-ustiategiaren titularrek bete beharko dituzte urriaren 4ko 35/2011 Legean, nekazaritza-ustiategiaren titulartasun partekatuari buruzkoan, edo hura ordeztzen duen arauan, ezarritako betekizunak, bai eta, hala badagokio, autonomia-erkidegoko eta foru-araudietan aplikagarri diren gainerako betekizunak ere.
3. Belaunaldi-erleboarekiko lotura. Ustiategiaren transmisiorako eta nekazaritza-jarduera ezartzeko zein mantentzeko laguntza-neurrien diseinuan eta aplikazioan, eskumena duten euskal administrazio publikoek titulartasun partekatua sustatuko dute jarraitutasuna eta belaunaldi-erleboa errazten dituen tresna gisa, arreta berezia jarritzaz gazteak sektorean sartzean eta emakumeek titulartasuna eskuratzeko.
4. Araubide fiskala. Ustiategi horiei aplikatu beharreko araubide fiskala Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako foru-erakundeek zehaztuko dute, beren eskumenen egikaritzan.

10. artikulua. *Titulartasun partekatuaren araubidea.*

1. Ustiategiaren ordezkartza, administrazioa, kudeaketa eta erantzukizuna bi titularrei egokituko zaie, berdintasun-baldintzetan, urriaren 4ko 35/2011 Legean edo hura ordeztzen duen arauan aurreikusitakoarekin bat etorriz, Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen araudian jasotako tratu-berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren, ekintza positiboaren eta genero-zeharkakotasunaren printzipioak aplikatzeari kalterik egin gabe.

2. Titulartasun partekatuko ustategia erakunde, kooperatiba, eraldaketarako nekazaritza-sozietate edo antzeko figura batean administrazio- edo ordezkaritza-eginkizunak betetzeko izendatzen denean, bi titularrek adostasun bidez izendatu beharko dute horietako bat kargua pertsonalki betetzeko, aplikatu beharreko araudiak hala eskatzen badu. Nolanahi ere, bermatu egingo da biek erabakiak hartzean benetako parte-hartzea izatea eta ordezkaritza-guneetara berdintasunez iristea.

3. Ustategiak sortutako etekinak, diru-sarrerak eta emaitza ekonomikoak bi titularren artean erdibana esleituko eta banatuko dira, urriaren 4ko 35/2011 Legean ezarritako baldintzetan, guztietarako aitortza indibiduala bermatuta, barne direla zerga-ondorioetarako eta babes sozialerako duten kontsiderazioa, aplikatu beharreko araudiaren arabera.

4. Ustategiari edo jarduerari lotutako laguntzak, ordainketak, eskubideak, kuotak, esleipenak edo antzeko ondorioa duten beste neurri batzuk, jatorria edozein dela ere, bi titularrei zati berdinetan esleituko zaizkie, aplikagarri den sektore-araudiaren arabera, eta modu horretan kudeatuko dira tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko eta bietako edozeinen eskubideak ikusezin bihurtzen edo gutxien dituzten praktikak saihesteko.

5. Banakako esleipena egin ondoren, aurreko apartatuetan aipatutako etekinak eta diru-sarrerak bikotearen itunetan edo ezkontza-kapituluetan xedatutakoaren arabera arautuko dira eta, halakorik ezean, aplikatu beharreko araubide ekonomikoaren arabera; hala ere, itun horiek ezin izango dira interpretatu edo aplikatu indarrean dagoen araudian ezarritako tratu-berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta emakumeen autonomia ekonomikoaren printzipioen aurka.

11. artikulua. *Titulartasun partekatuaren erregistroa.*

1. Titulartasun partekatuko araubidean dauden nekazaritza-ustategiak eta -jarduerak hala inskribatu beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Ustategien Erregistroan edo eskumena duen administrazio-erregistroan.
2. Erregistroak bi titularrak jaso beharko ditu, bai eta sexuaren arabera bereizitako datuak biltzea ere, estatistika-helburuetarako nahiz laguntzen kudeaketarako, genero-ikuspegia txertatzeko betebeharrekin bat etorritik.
3. Inskripzioa nekazaritza-ustategien titulartasun partekatuari buruzko estatuko oinarritzko legerian ezarritakoarekin bat etorritik egingo da.

VI. KAPITULUA.- LAGUNTZA-NEURRIAK

12. artikulua.- *Informazio-, zabalkunde- eta sentsibilizazio-neurriak.*

Eskumena duten euskal administrazio publikoek informazio-, zabalkunde- eta sentsibilizazio-kanpaina espezifikoak bultzatuko dituzte honako gai hauen inguruan:

Emakumeek nekazaritza-ustategien eta nekazaritza-jardueren titulartasuna eskuratzeari buruz.

- a. Titulartasun partekatua emakumeen ikusgarritasunerako, erantzukidetasunerako eta ahalduzko ekonomikorako tresna gisa.

- b. Titulartasunari lotutako eskubide ekonomiko, sozial eta profesionalei buruz.
- c. Belaunaldi-erleboari, lidergo-eredu berriei eta antolaketa-alaketari buruz.

Artikulu honetan aurreikusitako informazio-, zabalkunde- eta sentsibilizazio-kanpainak, materialak eta jarduketak, gutxienez, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan garatuko dira, hizkuntza-irisgarritasuna bermatuz eta euskararen erabilera sustatuz, nekazaritza- eta landa-eremuen errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuta.

13. artikulua.- *Lehentasuna laguntzetan, dirulaguntzetan eta sustapen-neurrietan.*

- 1. Nekazaritza- eta landa-arloan eskumena duten euskal administrazio publikoen laguntza eta dirulaguntzen arau erregulatzaila lehenetsia emango zaie titulartasuna emakume bati dagokion ustiategi edo jardueri, titulartasun partekatukoak direnei, edo emakumeen partaidetza ehuneko berrogeita hamarra baino txikiagoa ez den pertsona juridikoek kudeatzen dituztenei, betiere Europar Batasuneko araudiak eragotzen ez badu.
- 2. Lehentasun hori, gutxienez, honako bide hauen bidez artikulatuko da:
Balorazio-irizpideak, gutxienez lortu daitekeen gehieneko puntuazio osoaren ehuneko hamabostea hartuko dutenak.
 - a. Laguntzen zenbateko orokorrari ehuneko hamarretik hogeira bitarteko gehikuntzak, diruz lagundu daitekeen xedea jarduera bat soilik egitea denean.
 - b. Aurrekontu-nahikotasunik ezagatik hainbanaketa egin behar den kasuetan zenbateko osoa esleitzea.
- 3. Euskal administrazio publikoek aldian-aldian berrikusiko dute neurri horien benetako eragina, genero-desberdintasunak murrizteko duten eraginkortasuna bermatzeko eta egoki diren doikuntzak egiteko.

14. artikulua. *Esleipenak, ekoizpen-eskubideak eta ekoizpen-baliabideetarako sarbidea.*

- 1. Kuoten, ekoizpen-eskubideen, nekazaritzako lurzoru-funtsetatik datozen lurren adjudikazioen, administrazio-baimenen edo antzeko ondorioa duten bestelako neurrien esleipenean, lehentasuna emango zaie titulartasuna emakume bati dagokion ustiategi edo jarduerak aurkeztutako eskaerei, titulartasun partekatukoak direnei edo, bestela, emakumeen esku dauden ehuneko edo partaidetza sozialak gutxienez %50 diren pertsona juridikoenei, bazkideak bi direnean, edo gutxienez orekatua denean gainerako kasuetan.
- 2. Aurreko apartatuan jasotako ustiategiei lehentasunezko sarbidea izango dute errenta-egonkortzeko tresnetarako, mutualitateetarako, nekazaritza-aseguruetarako edo nekazaritza-politika erkideko antzeko beste mekanismo batzuetarako laguntzetara.
- 3. Nekazaritza- eta landa-sektoreko enpresa-proiektuei laguntzeko neurrietan, lehentasuna emango zaie deialdi bakoitzean ezarritako betekizunak betetzen dituzten emakumeek sustatutako proiektuei.

15. artikulua. *Afiliazioa eta babes soziala sustatzea.*

- 1. Eskumena duten euskal administrazio publikoek Gizarte Segurantzaren afiliatzeko laguntza-programa espezifikoak ezarriko dituzte nekazaritza- eta landa-sektoreetako emakumeentzat.

2. Programa horiek lehentasunez zuzenduko zaizkie Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako ustiategi edo jardueren titular edo kotitular diren emakumeei, beren konturako langileen edo autonomoen araubide berezian, Gizarte Segurantzako nekazaritzako norberaren konturako langileentzako sistema bereziaren bidez, edo une bakoitzean dagokien araubidean sartzen direnei; bereziki, sisteman sartze horrek etorkizuneko babes sozialerako eskubide nahikorik sortzen ez duenean eta, bereziki, Gizarte Segurantzaren sartzeak erretiro-pentsiorako eskubiderik sortuko ez duela kalkulatzeko denean.

VII. KAPITULUA.- AITORPEN, IKUSGARRITASUN, PARTAIDETZA ETA ORDEZKARITZA-NEURRIAK

16. artikulua. *Partaidetza eta ordezkaritza instituzionala.*

1. Nekazaritza- eta landa-arloan eskumenak dituen euskal sektore publikoko zuzendaritza-, kontsulta- edo erabaki-organoetako kide izateko pertsonen izendapena edo hautaketa emakumeen eta gizonen osaera orekatuarekin egingo da, behar bezala arrazoitutako kausa objektiboak salbu.
2. Laguntza eta dirulaguntzen epaimahai eta balorazio-batzordeek ere emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatuko dute.
3. Aurreko bi apartatuetakoa kasuetan, eta nekazaritza- eta landa-sektoreetarako lotesleak diren erabakiak hartzeko pertsona edo ordezkarien talde bat bildu behar den beste edozein kasutan, Euskal Berdintasun Legearen 10. artikuluko 3. apartatuan xedatutakoa bete beharko da.
4. Artikulu honetan aurreikusitako organo, lantalde, kontsulta-gune edo partaidetza-prozesuen funtzionamenduan bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da, indarrean dagoen araudiaren arabera, parte hartzen duten pertsonak beren aukerako hizkuntza ofizialean esku hartu eta dagokion dokumentazioa jaso ahal izan dezaten.

17. artikulua. *Partaidetza soziala, ekonomikoa eta politikoa.*

1. Nekazaritza- eta landa-sektoreetan jarduten duten emakumeek eskubidea dute sektoreko politika publikoen diseinu-, exekuzio- eta ebaluazio-prozesuetan solaskide baliadun gisa aitortu izan daitezen, haien interesak eta beharrak ikusarazi eta defendatzeko, haien autonomia sustatzeko eta haien gizarte-, ekonomia- eta politika-posizioa indartzeko.
2. Euskal administrazio publikoek emakumeen presentzia orekatua sustatuko dute nekazaritza- eta landa-sektoreetan jarduten duten elkarte, erakunde profesional, enpresarial, sindikal edo bestelakoen zuzendaritza-organoetan.
3. Ezin izango zaie laguntzarik edo dirulaguntzarik eman nekazaritza- eta landa-sektoreetan jarduten duten elkarte edo erakunde profesional, enpresariale, sindikalei edo bestelakoei, baldin eta beren zuzendaritza-organoetan emakumeen presentzia gutxienez orekatua ez badute, ezar daitezkeen aldi iragankorrak edo zuzenketa-planak gorabehera.
4. Jarraipen-batzordeak salbuespenak ezarri ahal izango ditu; horrela, eskaerak baloratzeko ardura duen administrazio-organoak estatutu honetan ezarritako emakumeen partaidetza bete ezin dutela justifikatzen duten elkarte eta erakunde kasuak bidaliko dizkio batzordeari, eta hark aztertu eta irizpen bat

helaraziko dio eskaerak baloratzeko ardura duen administrazio-organoari. Ezintasuna dagoela ulertuko da emakume bazkideen kopurua ordezkaritza-organoetan presentzia orekatua izateko parte hartu beharko luketen emakumeen kopuruaren bikoitza baino txikiagoa denean.

5. Euskal administrazio publikoek beharrezko neurriak hartuko dituzte lege honi lotutako partaidetza sozial, ekonomiko eta politikoko prozesuak hizkuntzaren aldetik irisgarriak izan daitezen eta bi hizkuntza ofizialetan garatu ahal izan daitezen, bereziki bermatuz euskararen presentzia eraginkorra nekazaritza- eta landa-eremuko emakumeekin eta erakundeekin izaten diren solaskidetza-guneetan.

18. artikulua. *Emakumeen sustapena eta besteren konturako enplegua nekazaritza- eta landa-eremuetan.*

1. Nekazaritza- eta landa-arloan eskumena duten euskal administrazioen laguntza eta dirulaguntzen arau erregulatzailuetan ekintza positiboko neurriak ezarriko dira, publizitate, lehia eta objektibotasun printzipioak errespetatuta, sektoreko enpresetan emakumeen sarbidea, kontratazioa, egonkortasuna eta sustapen profesionala bultzatzeko.
